

Estella-Lizarrar

Reyno de Navarra  Nafarroako Erresuma

Gobierno de Navarra  Nafarroako Gobernua




 CAMINOS DE SEFARAD
RED DE JUDERIAS DE ESPAÑA

Turismo Bulegoa
Plaza San Martín, 4
31200 ESTELLA-LIZARRA
(+34) 848 420 485
oit.estella@navarra.es
www.turismo.navarra.es

- CT** Estellerriko Turismo Partzuergoa (948 546 503)
- A** Udala (948 548 200)
- PM** Udaltzaingoa (948 548 226)
- PF** Foruzaingoa (948 555 570)
- GC** Guardia Zibila (948 550 232)
- Posta-etxea (948 551 792)
- S.O.S. Nafarroa (112)**
Eskualdeko ospitalea (848 435 000)
Osasun-laguntza (948 556 287)
- Farmaziak
- Liburutegia (948 556 419)
- Los Llanos Kulturgunea
estella-lizarrar.sacatuentrada.es
- Doako aparkalekua
- Ordainpeko aparkalekua
- Eremu urdina
- Taxiak (948 550 001)
- Gasolindegia
- Autobusak (948 550 127)
- Eskualdeko autobusa
- Tren turistikoa
- Haur-parkea
- Merkataritza-kale nagusiak
- Eremu monumentala
- Museoak
- Harresi-hondarrak
- Donejakue bidea
- Ibilbide nagusia
- Bigarren mailako ibilbidea
- PR-NA 202 Zumake (12 Km)
- Seinalaztatu gabeko pasealekua
- Vasco Navarro trenbidearen Bide Berdea
- Judutegi-sarea · Sefaraden bideak
- Hiri-igogailua
- Musika-eskola (948 554 408)
- Bisita gidatuak:
- * Navark: 948 553 954/647 735 919
www.visitarestella.com
- * Naturan: 687 212 113 · www.naturan.es

- NON JAN**
- 1** Asador Astarriaga • 948 550 802
 - 2** Asador La Tasca • 948 546 496
 - 3** Camping Lizarrar - Nuevo Ordoiz 948 551 733
 - 4** Casanova • 948 552 809
 - 5** China Town • 948 552 988
 - 6** Don Menú • 948 556 087
 - 7** El Volante • 948 555 695
 - 8** Florida • 948 550 015
 - 9** Hostel Gasolinera Área 99 • 948 555 370
 - 10** Hotel Yerri • 948 546 034
 - 11** Hotel Tximista • 948 555 870
 - 12** Mundo • 948 554 538 / 685 430 742
 - 13** Izarra • 948 550 024
 - 14** Katxetas • 948 550 010
 - 15** La Cepa • 948 550 032
 - 16** Bar-Restaurante Monjardín • 948 911 156
 - 17** Navarra • 948 550 040
 - 18** Pabellón Deportivo de Estella • 948 555 084
 - 19** Richard • 948 551 316 / 638 912 838
 - 20** Rochas • 948 546 491
 - 21** Xanti • 848 411 344
 - 22** Taller gastronómico Casanellas • 676 291 615 / 686 867 523



- NON LO EGIN**
- H1** Hospedería Chapitel**** C/ Chapitel, 1 • 948 551 090
 - H2** Hotel Tximista**** C/ Zaldu, 15 • 948 555 870
 - H3** Hotel Yerri** Avenida Yerri, 35 • 948 546 034
 - Hs1** Hostal Cristina* C/ Baja Navarra, 1 • 683 222 516
 - Hs2** Hostal Área 99 C/ Merkatondoa, 32 • 948 555 370
 - Hs3** Hostal El Volante Trav. Merkatondoa, 2 • 948 553 957
 - Hs4** Hostal La Rúa C/ La Rúa, 21 • 620 282 643
 - P1** Pensión Bed & Breakfast Zaldu** C/ Pío Baroja, 1 • 948 552 263 / 636 116 943
 - P2** Pensión Ibai Ega C/ Donantes de Sangre, 3-3ª izda • 681 052 181
 - P3** Pensión Buen Camino* C/ San Nicolás, 27 • 948 550 337 / 605 588 985
 - P4** Pensión Los Llanos C/ Doctor Huarte de San Juan, 8 • 658 517 679
 - F1** Fonda Izarra C/ Calderería, 20 • 948 550 678
 - C1** Camping Lizarrar**** Camino Ordóiz, s/n • 948 551 733
 - A1** Albergue Municipal • 948 550 200
 - A2** Albergue Parroquial San Miguel
 - A3** Albergue ANFAS • 639 011 688
 - A4** Albergue Juvenil Oncineda (2ª) • 948 555 022 / 948 553 954
 - A5** Hospedería Convento Benedictinas • 948 550 882
 - A6** Albergue de Capuchinos (1ª) • 948 550 549 / 948 550 013
 - A7** Ágora Hostel C/ Callizo Pelaires, 3 • 948 546 574
 - A8** La Hostería de Curtidores C/ Curtidores, 43 • 948 550 070
 - A9** Albergue Alda Estella Hostel Plaza Santiago, 41 • 948 030 139

HIRIAREN JATORRIA



Hasieran, **Lizarra** izeneko herrixka baskoi txiki bat izan zen. Biztanleak nekazariak ziren eta Iruña eta Nafarroako erregearen mendekoak ziren. Euskara zen haien hizkuntza.

XI. mendearen bukaeran, Erregearen Donejakue Bidea sortzen ari zen, eta, erromesei lo egiteko aukera errazteko, **Estella-Lizarra** hiri berria sortu zen. Hala, 1090ean, Antso Ramirez erregeak Lizarrako forua eman zion Egako hiriri eta merkatarri frankoen (zergarik ordaindu behar ez zuten pertsonak) kokalekuak sustatzea zuen asmoa.

Hasiera-hasieratik, **Donejakue bidea**, Lizarran, burges etorri berriek irekitako dendez eta ostatuez beteak egon zen; gehienak Nafarroako erresumatik kanpotik etorriak ziren. Ekonomiaren goraldia dela eta, asko eraiki zuten eta, hala, XII. mendean zehar, eraiki erlijiosoak jaso ziren.

XI. eta XII. mendeetan, Ruako San Pedro zen egungo Lizarraren hasikina. Ega ibaiaren ezker aldean, denda, ostatu, truke-ete eta ospitale gehiago ireki ziren eta, horren ondorioz, beste bi auzo sortu ziren San Migel eta San Joan parrokien inguruan. **Lizarrako Forua** modu berean aplikatu zitzaizkien hiru auzoetako biztanleei.

Joan den mendera arte, hiru auzoek ardura handiz eutsi zieten beren lurralde-muga eta pribilegio historikoei, baina, 1266. urteaz gero, alkate eta erregimentu bakarrak administratzen zituen.

FESTAK ETA FOLKLOREA

Abuztuko lehen igandearen aurreko ostiralean –Erraldoien Ostiralean– hasten dira herriko festak, Puyko Andre Mariaren eta San Andres apostoluaren omenez. Igandean, gizon guztiak zuriz joaten dira santuaren aldeko prozesiora, espartinak eta gerriko eta zapi gorriak jantzita. Desfile erlijiosoa **“pañuelada”**rekin bukatzen da: Ruako San Pedro elizatik, gizonak dantzan joaten dira, ordena handiz, Wagnerren martxa baten erritmoan, eta udaletxeraino ailegatzen dira.

Goizero, bigantxen entzierroa izaten da. Goizaldeko ordu batean, **Larrain dantza** dantzatzen da Foruen plazan.

Larrain dantza Lizarrako berezko dantza da. Oso garapen konplexua du; bikoteek erritmo desberdinetan dantzatzeko dute: katea, fandangoa, balsa eta jota, eta, bukatzeko, bolera zail eta bizkorrak egiten dituzte. Gaiten soinu karrankari eta sendoa, danbolinaren tarapatak lagunduta, Lizarrarekin lotzen da eta, belaunaldiz belaunaldi, hiri horretatik atera dira gaita-jotzaileen bikote preziatuenak.



Azaroak 30aren hurbileneko asteburuan, **San Andrés** ferriak ospatzen dira.

JAN ETA EDAN

Txerrikume errea da Lizarrako janari tipikoa. Entsalada da haragi goxoaren adiskiderik onena, eskualdeko ardo beltz edo gorri goxoek lagunduta.

Postrerako, Urbasa-Andiako gazta. Azkenik, digestioa errazte aldera, ongi etor liteke kopa bat patxaran (anisa basaranekin).

Bertako babarrun gorriak (kalboteak) xingarrekin, horra neguko egun hotzetarako plater aproposa. Baita, jakina, neguko boilurra bildu eta bilatzea ere.

Udaberrian, zainzuri freskoak edo barazki-menestra dastatzea gomendatzen dizugu, orburuz, zainzuriz edo sasoiko beste barazki batzuek lagundurik, adibidez.

Pikillo-piper zapoetsuak, aldiz, urteko edozein sasoitan jaten ahal dira: haragiz nahi arrainez beterik, bakarrik haragiari lagun egiteko edo entsaladan hasierako gisa. Perretxiko-nahaskiak ere aukera ona dira, beren garaian (irailaren bukaeratik azaroaren bukaera arte). Baita garaiko ondoak ere, nahaskian edo labean baratxuriarekin. Bildotsa txilindronean (bildotsa, piper gorriak, tipula eta baratxuria).

Ajoarriero bakailaoa (idortua, piperrekin, tipularekin, baratxuriarekin eta tomatearekin). Garaiko babarrun potxak (abuztuaren bukaeratik urria arte).



KARTZELAKO ZUBIA



RUAKO SAN PEDRO ELIZA



RUAKO SAN PEDRO ELIZA



ANTZINAKO UDALETXEA

Hiria bisitatzea

ibilbide nagusia

1. TXORROTEN ITURRIA (xvi. mendea)

2. NAFARROAKO ERREGE-ERREGINEN JAUREGIA. Gustavo de Maeztu museoaren egoitza (xii. mendea). Arkupedun fatxada: ezkerreko zutabeen, Errolanen eta Ferrugat erraldoi islamiarraren arteko borrokaldia agertzen da kapitulean. Solairu nagusian, leiho bikiak daude ekialdeko kutsuko kapi-telekin. Eraikina errematatzen duten dorreak eta adreiluzko galeria xvii. mendekoak dira.

3. ANTZINAKO UDALETXEA (Turismo Bulegoa). Fatxada barrokoak zutabe eta pilastra klasikoak ditu, kapitel konposatu-ekin. Solairu nagusian, hiriko bi armari daude.

4. RUAKO SAN PEDRO ELIZA. Harmailadia 1968an eraikia da, eta eragin arabiarra duen arku polilobulatudun ateraino (xiii. mendea) eramaten du. Ezkerreko alboko mentsulan, grifoak. Eskuinean, Sagitario ageri da, arku eta geziarekin, sirena zatibitu baten zilborrari apuntatzen ari dela. Barruan sartu eta eskuinera, xii. mendeko bataiarria dago, paradisua urez hornitzen zuten lau erreka irudikatzen dituena. Erdiko nabearen absideak erromanikoa (erdiko gorputzean) eta zisterarra (hiru absidiolo erradial txikietan eta gangan) nahasten ditu. Hiru sugeak, jakinduriaren sinbolo, xix. mendearen bukaeran gehitu ziren. Erdiko absidioloan, xiv. mendeko kristo gotiko bat dago; ezkerrekoan, Arrosarioko Amaren irudi gotiko bat (xiv. mendea), eta eskuinekoan, San Pedro barroko bat (xvii. mendea). Ebanjelioaren nabea: absidean, erretaula barroko bat gurutze erromaniko batekin; San Andresen kapera barrokoa (hiriko patroia). Zilarrezko erlikia-ontzi mudejarra ebatsitako jatorrizkoaren kopia da. Epistolaren nabea: Bariko San Nikolasen irudi gotikoa eta Egako Granadako dukeen hilobia, Errege-erregina katolikoek estiloan. Zalatanbor gaztelua 1572an eraitsi izanak txikizio handia sortu zuen elizaren estalkietan eta klaustroko bi galeria hondatu zituen. Gaur egun, bi galeria gordetzen dira: iparraldekoa eta mendebaldekoa. 14. kapitela bikoitza da eta zutabe tortsoez osatuta dago, honako hauetan bezala: Santo Domingo de Silosko (Burgos) klaustroa, Carcenako (Soria) elizaren arkupea, Palentziako San Andres de Arroyoko arkupea eta Burgo de Osmako katedralaren klaustroa.

5. FRAI DIEGO LIZARRAKO KULTUR ETXEA. xvi. mendeko jauregi platereskoa. Fatxadan, solairu nagusiak albo bana-

tan zutabeak dituzten bi balkoi ditu; zutabe horiek balustradunak dira eta frontoi zirkularrekin errematatuta daude. Rua kalean aurrera joanda, arku gotiko asko topatuko ditugu, Donejakue bidearen bazterretan irekitako denda eta ostatuen sarbidea zirenak garai batean.

6. GOBERNADOREAREN JAUREGIA. KARLISMOAREN MUSEOA. xvii. mendearen hasieran eraiki zen. Harlanduzko eta adreiluzko fatxada simetria eta sinpletasun klasizistaren araberrako irizpideen arabera antolatuta dago.

7. HILOBI SANTUAREN ELIZA. xiii. mendearen bukaeran hasi ziren eraikitzen eta XIV.enean bukatu zuten. Portadari begiratzeko, pasioaren elementuak daramatzaten aingeruak ikusten ahal ditugu arkibolten giltzarrietan. Arkibolten giltzarrien goialdean, Kristo berpiztuaren tailla bat dugu. Tinpanoa goitik behera zertututa: I.a. Kristoren gurutzaketaren eszena. II.a. Erdialdean, Kristoren berpizkundera eta Kristo infernura jaistea ageri dira. III.a. Azpian, azken afaria dugu. Fatxadaren goiko aldearen alboetan, apostolu-bildua bana bana ageri da ezker-eskuinean. Atearen ondoan, apezpiku baten eta Santiagoren figurak ditugu eta, eskuineko arkuaren giltzarrian, San Joan Bataiatzailearen irudia dago gamelu-larruz jantzita.

8. KARTZELAKO ZUBIA. 1973an eraikia, 26 metroko irekiera du. Jatorrizko erromanikoa liberalake lehertu zuten, 1873an (3. karlistaldia), hiriaren blokeoa izan zen bitartean.

9. LIBURUTEGIA. Jauregi errenazentista. Bere jatorrizko egiturari eutsi dio.

10. SAN MIGEL ELIZA. Merkatu zaharraren plazatik, harmailadi batek elizaren iparraldeko atera eramaten gaitu, eta, han, erromaniko berantiarreko eskultura multzo garrantzitsua dugu. Portadako kapitela nabarmen zuten, baita tinpanoko pantokratorra, arkiboltak eta erliebeak. Barruan, Santa Elenaren erretaula dugu, 1416koa. Aragoiko eskolakoa da. Erretaula nagusian (xviii. mendekoa), San Migelen tailla bat dugu, estilo gotiko-flamenkokoa.

11. TXAPITELEKO KALEXKA. Pasabide pintoresko horrek Ega ibaiaren bazterrean dagoen plazatxo batera eramango gaitu.

12. JAUREGI BARROKOA (xviii. mendekoa), Kale Nagusiko 41. zenbakian.

13. FORUEN PLAZA. Hiriko bilgunea da. Gaur egungo plaza Patxi Mangado arkitekto lizarrarrak eraiki zuen, xx. mendearen bukaeran. Ostegunetan, fruta- eta barazki-merkatua izaten da. Hileko 2. larunbata goizetan, bertako ekoizleen merkatua



SAN MIGEL ELIZA



MUSEO GUSTAVO DE MAEZTU



HILOBI SANTUAREN ELIZA



SANTA MARÍA JUS DEL CASTILLO

14. SAN JOAN BATAIATZAILEA ELIZA. Fatxada 1902an bukatu zuten, Anselmo de Vicuñaeren arkitekto lizarrarraren planoen arabera. Jatorrizko fatxada behera etorri zen, 1846an, erdiko gangarekin batera. Alboko ateeak erakusten dute parroki hori antzina-antzinakoa dela; hegoaldekoa gotikoa da, eta iparraldekoa, erromanikoa. Barruan, xvi. mendearen hasierako erretaula erromanista bat dago. Gurutze gotiko bat ere badago, epistolaren nabearen oinean.

15. SANTIAGO PLAZA. Oinplano triangeluarrekoa, arkupe-duna; plaza ixten den aldean, Santiagoren portalea zegoen. San Andresetik hurbilen dagoen asteburuan (azaroaren 30ean) azienda feria egiten da. Ostegunetan: arropa- eta oinetako-azoka.

16. ERREKOLETOEN KOMENTUA. Santiago Raónen proiektuaren arabera eraiki zen, eta 1731n inauguratu. Elizako fatxada barrokoa harlanduzkoa da, eta manposteria, berriz, nagusi da erakinaren gainerako ataletan. 1983an, presbiterioan kokatutako hilobi-kripta aurkitu zen.

17. LOS LLANOS PASEALEKUA. Zenbait zuhaitz-motaren itzala eskaintzen du, Ega ibaiaren freskurarekin batera: gaztainondoak, platanoak, akaziak, pinuak, astigarrek eta laritzak. Mendebaldean, Arietako harkaitzak ixten du pasealekua.

Bigarren mailako ibilbidea

18. GAZTELAKO ATEA. Erdi Aroko hiritik zutik geratzen den portale bakarra. Hura zeharkatzean, hiriko mugetatik kanpo aterako gara.

19. SANTO DOMINGO KOMENTUA. Teobaldo II.ak sortu zuen, 1259an. Gaur egun, adinduentzako egoitza bat da. Estilo protogotikokoa da eliza, nabe bakarrarekin; abside laua du, eta horma-bularrak. Monasterioak, oraindik ere, honako hauek gordetzen ditu: sakristia, kapitulu-gela, klaustroa, jangela eta logela. Ezin da bisitatu.

20. SANTA MARIA JUS DEL CASTILLO. Elgazena auzoan kokatu zen Lizarrako judutegia, Nafarroako erresumako hirugarren garrantzitsua, Tuterako eta Iruñeko aljamen ondotik. 1328ko martxoaren 6an jasandako erasoak zapuztu zuen haren oparoaldia. 1145ean, Santu Guztiei eskainitako eliza bihurtu zen sinagoga; geroago, Santa Maria Jus del Castillo izena eman zioten Belmetxer gotor edo gazteluaren oinean zuten kokapena dela eta. Fatxada barrokoak izan ezik, eraikin erromaniko osoak irau du. Gaur egun, Erromanikoa eta